

Asparrengo Udalaren barrutian, Arabako Lautadaren Iparrekialdeko punta-puntan, Araia herria dago.

Araia ibaiari izena eman edo kendu egin zion, hain zuzen Nafarroan sartu eta Burunda izena lehen, gero Arakil, hartzen duen ibai berberari.

Mendiak nondik-nahi ia: Aitzaniakoak bertan ditu; Urkilla, Entzia eta Urbasakoak ere hurbil. Han goian, urrutian, Aratzen tontorra zaindari.

Herri honetan jaio zen, 1902ko uztailaren 16an, Andoni Karmelo Urrestarazu Landazabal, arabarrek, batik bat, Umandi izengoitiaz hobeto gogoratzen dutena.

Patuak aginduta, nonbait, hainbeste maite zituen mendiak behin eta berriz begi bistatik galdu behar zituen. Baina Umandi norabide bakarreko gizona izan: euskara bere hizkuntzatzat eta Euskal Herria bere aberritzat hartu zituenetik, non-nahi eta edozein baldintzatan, bien aldeko lanari, berarentzat lan bakarra zenari, lotuta ageri zen.

Bera bezalako abertzale mordo bat aurki liteke, apika; berak bezalako gorriak edo gorriagoak pasatutakoak, anitz: garaiak egin zituen. Bere gisako irakasleak, ordea, bera bezain eragile eta eraginkor, ausart eta are temati, inor gutxi. Batez ere gure Araba erdigalduan.

Andoni Urrestarazu. *Umandi* (1902-1993).



## LEHEN URTEAK

Ama Amparo haurtzaroan galdu zuen. Eta aita Josek, ezinbestean, seme-alaba guztiak kanpora ikastera bidali zituen.

Andoni Arrasatera joan zen, irakasle baten apopilo. Oroimen onak gordetzen zituen garai hartatik.

Gainerako ikasketak, Gasteizko Marianistetan burutu zituen, berriro ere inoren etxean bizi zelarik.

Batxilergoa bukatu zuenean, bai ikasi ez ikasi ibili zen. Tartean, metalgintza lantegi batean hasi zen lanean.

Soldaduzka egiteko aldia iritsi zitzaion. Nora eta Afrikara. Eta, gainera, Afrikan gerra topatu zuen, marokoarren kontra Espainiako armadak igaro zituen garai txarrenetako batean.

Hango gorabeheren erdian, sukar tifoideakin-edo gaixotu egin zen. Zorionez, onik atera zen, nahiz eta artean etxekoek bere hil-berria hartuak ziren.

Gasteizera itzuli zenean, Bilboko Bankuan lan egiteko oposaketak gainditu eta Madrilgo bulegoetara bidali zuten.



Bataio-egunean.



Joakin bere anaia txikiarekin. 23 urte zituela zitzaion. Idazle goiztiarra berak erabili zuen lehenengoz, Euzkadi-n, gero anaia nagusiak ospetsu bihurtuko zuen Umandi ezizena.

## GERRA INGURUAK

Madriilen hamar urte egin ondoren, 1935ean Donostiara aldatu zuten. han gerrak harrapatu: Laredoraino iritsi ziren gudariean artean genuen Umandi.

Gauzak erabat okertu baino lehenago, gabardina jantzita tipi-tapa atetik ihes egin zuen gudariak inguratzen zituen hesitik.

Gainerakoa ez zen hain erraza izan. Laredon ostatu hartu zuen, laguntza noiz etorriko zain. Egunak joan egunak etorri, halako batean etxean zerbait falta, hala-holako pitxi batzuk edo, eta arrotzari egotzi zioten errua.

Probintziako Espetxean sartu zuten preso komunekin, eta horrexek gorde zuen, ziurrenik, hainbestek jasotako azken beltzetik. Han bi urte baino gehiago eman zituen.

Ibiltari ona, mendira joateko aukerak galtzen ez zituen. Argazkia Guadarramako Siete Picos-en (2138 m.), 1929-VI-28an, Madriilen bizi zelarik.




Ez zuten aise askatu, halere: Laredotik Larrinagako kartzela zaharrera eta handik Donostiara, bide luzea eginarazi zioten, senitartekoak non zegoen atzeman ezinik zebiltzalarik.

Azkenik Gasteizera itzuli zen, eta bertatik hasi bere bizitzako lana izango zena: euskararen irakaskuntza.



Madrilgo lagunek, Eusko ikas Batzakoek, eskaini zioten "agurraren aperi koxkorra" (1935-IV-27, San Prudentzio bezperan), Euskal Herriko jan-edariz ongi hornitua, euskarazko menu eta guzti.



## ERBESTERA

Aldi berean, frankismoaren kontrako borrokan sartua zebilen. Honenbestez, Gasteizko Bakea kalean zegoen espetxe oroitza txarreko hura barrendik ondo ezagutzeko parada behin baino gehiagotan eskaini zioten. Senitartekoei abokatuak, epaileak eta are gobernadorea bera ere bezain ondo.

1951ko 48 orduko grebari jarraitu zion errepresioan, EAJko barruko sareak koipe gogorak jasan zituen. Lehenengo atxilotetak Gasteizen izan ziren. Umandi eta lagunak, denak edo ia, poliziaren eskuetan erorita, bizpahiru hilabetez aipatutako espetxean itxi zuten.

Askatu beharrean, Huescara bahitu zuten. Berriz ere senitarteak bere berri bila hasi behar.

Gasteiztik 100 kilometrotara bizitzeko erbeste-zigorra ezarri zioten. Eta Iruña hautatu zuen bizi-lekutzat.

Azkenean Frantziara alde egin zuen, Parisen eta Baionan 26 urte igaroaz, Eusko Jaurlaritzarentzat administrari lanetan.

Bidasoa oinez, marea behean, karramarrotan zebilelako itxura eginez igaro zuen. Epaiketaren zain utzi zituen gainerakoak. Baina ez zuen

beldurrak eragin: egia eta egia bakarrik esan daitekeela guztiz sinistuta baitzegoen, lagunak egia esanaz ez salatzeagatik alde egin zuen.

Paristik bertsotan, arrebaren urtebetetzerako "Bizian zear benetan maite izan naun nere arreba kutunari" idatzi zuen bere gramatikaren eskaintzan. Urte on eta garratzetan, aldamenen lanean ala non-nahi nebaren galdez, beti lagun eta laguntzaile izan zuen. Miren Teresek, gaur egun, 89 urterekin, euskarazko eskolak ematen dihardu.

URUNDIKI, oroitzen aut  
Oroitzen etxea;  
Deraren babesean  
Agokit arreba.  
Gogo ta biotzetik  
Biatzen dinat gaur,  
Ezki ta maitasunaz,  
Bait, zorion-ajur.  
Inekin smelotari  
Amets gorroanik,  
Emea naun gau ta egun  
Biatzen ere nik.  
Ondezpin jaso eratan  
Maitasun indarrez  
Orxe berrakutzen aut  
Suetsu ta yoranoz  
"MIREN GUREN URTEAIT,  
Alai ta smolero  
PARIS' TIK OTSAILERY  
Ire neba

## AZKEN URTEAK

1979an atzerria utzi eta bere arrebaren etxera bildu zen bizitzera, Gasteizen. Eten gabe euskara erakusten eta idazten jardun zuen azkenera arte.

Osasun oneko gizona izan zen. 90 urte bizkarrean eta oraindik buru argia eta kemena gordetzen zituen.

1993ko San Prudentzio egunean Armentiaiko erromeriara joan, eta handik egun gutxira ondoezik hasi zen. Sendagileak bihotzeko mina zeukala iragarri zion.

Urte bereko azaroaren 21ean hil zen, 91 urterekin.

Asparrengo Udalak eskaini zion omenaldi-egunean (1990-VIII-15). Hiru urte beranduago, ehorzketa egunean, dantzariak berriz omendu zuten, hilerrian aureskua dantzatuz.



## GIZON ONA

Bost hitzetan definitzen zuen bere parrokiako erretoreak: euskalduna, abertzalea, langilea, irmoa eta fededuna.

Baketsua, lotsatia eta apala, eskatzen zitzaion laguntzari uko egiten ez zekiena... Honelako oroitzapena utzi zuen ezagutu zutenen artean.

Guda ostean txikitandiko sinismena sendotu egin zitzaion. Egunero meza entzun eta errosarioa esaten zuen. Estibalizko Ama Birjinarenganako zaletasun berezia zeukan: Gasteizera itzuli zenetik igandero oinez joaten zen hango meza entzutera (16 km. inguruko joan-etorria), eta honela 88 urteak bete arte.

Baina honen guztiaren gainetik, euskarari eta Euskal Herriari zegokien guztian, "ezin geldirik geratu", berak zioen bezala. Ez eta ixilik ere.



Araiako Andra Mariren basiliza, omenaldi-eguneko mezan. Alboko hilerrian aurkitu zuen azkeneko egoitza.

## EZAGUNAK

Euskarari buruz jakin-nahia zeukaten atzerritar mordoxka baten solaskide nekaezina izan zen. Euskara eta Kaukasoko hizkuntzen arteko erlazioak aztertzen zebiltzan Dzambulat Dantzy osetiarrarekin eta Alexandre Sollohub georgiarrarekin, adibidez.

Edo euskaldunak eta bere herritarrak noizbait batuta egon zirelako ustea frogatu nahi zuen Hamit Kosay Ankarako Unibertsitateko irakaslearekin.

Ameriketara ere bazituen adiskideak, besteak beste Idahoko Liburutegiko buru zen Stanley A. Shepard.

Denekin izan zituen harremanen gaia beti beti euskara eta Euskal Herria izan ziren.

Gasteizko urrezko domina jasotzeri (1984-VIII-5, Ama Birjina Zuriaren egunean). Koldo Mitxelena eta biei batera eman zitzairen. Garaiko *Udal Informazioaren Aldizkaria*-k "ez dut nik merezi" esanez bezala jaso zuela azpimarratzen zuen. Aldizkari beraren hainbat zenbakitan esku hartu zuen, lehenengotik hasita. "Lana eskatzea pixkat luzatzen badugu, uste du ez dugula behar; honek erakusten digu bere izaera, zein gutxi irizten dion bere buruari, benetan zeharo kontrakoa den arren" idatzi zuen zuzendariak.



## EZAGUTZEN

Jasotzen bezala, ohore eta omenaldiak alde batera uzten ere bazekien.

Gogoz onartu zuen Gasteiz Hiriak eskainitako urrezko domina (1984); baita *Asparrengo Udalak magalpeko seme* izendatzea ere (1990).

Ordea, euskaltzain ohorezko izendapenari uko egin zion (1993), bere pentsamolde eta ibilbideari atxikirik. Era berean, Umandi Gasteizko ikastolak Lakuako etxe berria zabaldu zuenean, ez zuen jairako deia onartu, eta izena aldatzeko ere eskatu zuen.

Ezin gaizki har gizon prestu haren erantzuna. Bere hiletetara ez zuen huts egin Euskaltzaindiak, Endrike Knörr euskaltzain arabarraren ordezkapenarekin.



Asparrengo Udalak *magalpeko seme* izendatzearekin batera, Araia bere jaioterrian kale bat eskaini zitzaion. Argazkian, estalkia kendu ondoren, alkatearen ordezkari izan zen Claudio Gaunarekin.

## EUSKALDUN BERRI

Goierritik iparraldean eta Burundatik ekialdean hain gertu egonik, Araia eta euskararen arteko erlazioa Arabako beste lurralde batzuetakoa baino askoz iraunkorragoa izan da.

Nolanahi ere, bertako euskarak azken arnasak gehienez ere 1850 inguruan eman zituen. Etxe erdaldunean jaio zen, beraz, Umandi.

Alabaina, oso gazterik ohartu zen bere herriaren sustrai euskaldunez. Gasteizen, batxiler-ikasketak amaitu eta hurrengo urtean (1919an) hasi zen, 17 bat urterekin beraz, euskara ikasten, Euskaltzale Bazkuna erakunde sabindarraren ikasbidearekin.

Madrilgo denboretan, Juan Ruiz de la Escalera Maidagan izan zuen irakasle, Eusko Ikas Batzan. Donostian, berriz, Euskal Izkera ta Iztunde Ikastolan Toribio Alzagak eta Maria Dolores Agirrek zuzentzen zituzten ikastaroetan aritu zen.

Nahiz eta gerrak ikasketok eten, espetxean ere ikasten jardun zuen, baita ikasten zuena irakasten ere.



Araia Altzaniako mendien magalean; atzean Aratzen tontorra ageri da, guztien gainetik.



Araiako jaiotetxea. Marmario auzoan.



## IRAKASLE NEKAEZIN

Gogora dezagun une batez zer izango zen 1942ko Gasteiz hura, Umandik aurkitu zuena espetxea utzi zuenean.


Giroari gutxi begiraturik, une hartantxe hasi zen, etxean, euskara irakasten bertara hurbiltzen zirenei. Hogeiren bat ikasle, hasiera hartan.

Abian jarri zituen euskarazko taldeek aurrera egin zuten bere erbesteratzea gorabehera. Parisen, ostera, ikasle berriak lortu zituen. Gutunez gidatzen zituen Hego Ameriketako batzuk ere izatera iritsi zen.

Frantziatik itzuli bezain laster, Udaberria bazkunean irakasle lanean hasi zen, baita etxean ikasle asko hartzen ere. Gasteizko Irratian hiru urtetan berak antolatutako ikasgaiak eman ziren, Miren eta Rufino Iregi osaba-iloben aholketan.

Izan ere, Gasteiz dugu bere zordunik handiena, Manuel Lekuona eta bestek gerra aurrean irekitako bidean aurrera egin zuen, hiri honen berreuskalduntzeari jarraipena ezeze bultzadarik handienetako bat emanez. Gaurko irakasle arabar askoren irakasleak berak hezi zituen.

Bere ikasleen artean, izen ezagun asko: Jose Angel Cuerda Gasteizko alkatea, Salvador Espríu idazle katalana, Sanchez Carrión hizkuntzalaria...



Umandiren urtebetetzea iristear zegoela (1950-VII-13) Gasteizko ikasleek egindako opari-gutuna. "Zuk irabazten duzuna baino askoz gutxiagoa da" esaten diote, esker onez. Ez zuen behin ere hemendik xentimorik atera nahi izan. Kultura Jainkoak emandako dohaizat zeukan, halaber dohainik zabaldu behar zena. Eskuzabaltasun berarekin banatzen zituen bere liburuak.

9



Ikasle talde batekin. Tartean, Miren Terese arreba eskumatik bigarrena eta Izaskun Arrue hirugarrena. Gasteizko lehen andereñoa: 1969 inguruan, haurren ardura hartu zuen bere etxean, Olabide ikastola izango zenari hasiera emanez. Helduxeago zirenentzat, igandero, Miren Terese eta besteren artean euskarazko eskolak ernaten ziren Urrestarazutarren etxean.

# 10

## NORBERAK IKASI BEHAR

Bizitza guztian zehar ikasle sentitu zen.

Bere ustez, euskaldun guztiok ahalegin berezia egin beharko genuke, beti eta beti euskaran sakontzeko. Norberaren indarren arabera euskara ahalik ongiena ikastea eta erabiltzea, euskara hedatzea, gutariko bakoitzaren zeregina da, eta Euskal Herriari zor diogun eginbidea.

## EUSKARA BEHARREZKOA DUGU

Bere ekintza guztietan gidatzen zuen sinestea hauxe zen: Euskal Herriak ez duela euskara baino behar handiagorik, "bizidunak airea bezala".

Bere herriaren askatasuna euskararen nagusitzearekin zeharo lotuta ikusten zuen. Euskotar guztiak euskaldunak izango direnean eta euskaldun guztiak euskaraz pentsatuko dutenean, "orduak bakarrik esan al izango du gure Erriak azke dala".



Azken-nahia, hil baino lehen idatzitakoa. Bere hiletetan irakurri zen. "Gure hizkuntzaren berpizteak benetan arduratzen zuen. Bere ekintza jakintza ereitea zen. Sere ametsa Euzkalerria euzkalduntzea" idatzi du bere arrebak.

## EUSKERAZAINA

Andoni Urrestarazu 1992an euskerazain oso izendatu zuen Euskerazaintzak.

1918tik eta 1936 arte Euskaltzaindiak egindako lana goraiatzen bazuen ere, 1968. urtetik aurrera eraman zuen bidea, euskara batuarena alegia, gaitzesten zuen.

Halaz ere, erdibitze honegatik zeharo kezkatuta agertu zen beti, euskarari berari kaltea baino besterik ekartzen ez ziolako uste osoan.

Euskararen aldeko indar guztiak bat egitea, horixe aldarrikatzen zuen, inor arbuia gabe elkarrekin jardutea, "ororen elburua berbera dala gogoratzen".



Euskerazain agiria. Euskaltzaindiaren irizpideekin bat ez zetozen euskaltzaleak 1986an Tolosan batu eta Euskerazaintza herri-akademia antolatu zuten. Agustin Zubikarai izan da lehen lehendakaria.

# EUSKARAREN BATASUNA

Umandi euskara batuaren kontra azaldu zitzaigun, ez ordea batasunaren kontra.

Bere ustez, euskara batua batbatean sarraraztea, batasuna "arrapaladan eta edonolaz egitea" zen.


Izan ere, euskalkiak ez daude elkarrengandik dirudien bezain urrutiti; handiagoa da jadanik dagoen batasuna ezberdintasuna baino.

Herriak mantendu baitu orain artean euskara bizirik, literatur hizkuntza dela eta, herriarengandik alde egiteari galbide zeritzon; herriarekin bat egiteari, ordea, herrikoia izateari ezinbestekoa.



Hortaz, euskal eskolaren bitartez, gramatika erakutsiaz, erdarakadak alde batera utziaz, pixkanaka pixkanaka ezberdintasunak ezabatuz joango liriateke.

Berez etorriko zen batasun baten alde zegoen.



Azkueren Gipuzkera osotua (1935) eredu izan zuen beti Umandik. Gipuzkera oinarritzat hartzeko proposatzen zuten, gainerako euskalkietako aberastasuna erantsiaz. Euskara batu bat egiteko lehenengo saioretakoa dugu.

## IRAKASKUNTZAREN BEHARRA

Erdaraz ikasitakoek, nahi eta nahi ez erdaraz pentsatu behar. Horixe zen Umandik buruan zeukan kezka. Irakaskuntza, euskaraz egindako irakaskuntza, zernahiren aurretik jartzen zuen, euskaraz pentsatzen duten euskaldun jantziak lortzeko.

Ikastolen gorakadak, Araban batez ere, biziki pozten zuen. Baina bere gogoak gorago jotzen zuen: non-nahi euskal eskolak nahi zituen, irakaskuntza guztia euskaraz antolatuta daukan Euskal Herri baten itxaropenarekin bizi eta hil zen.

13

Umandi ikastola 1975eko urtarrilean jaio zen, 11 haurrekin. Gaur sare publikoan dago eta Gasteizko entzutetsuenetakoa dugu. Izena eta ez izana, batua ikasten da bertan, jakina. Umandik, ordea, Araban bizkaiera eta gipuzkera erakutsi behar zirela uste zuen: bizkaiera nagusi, Arabako herri euskaldunetan gaur egun mintzatzen den bakarra izaki; gipuzkera, osagarri gisa.



## EUSKARAREN ALDE LANEAN

Non ibili han zerbait egin behar.

Baiona-Pariseko EKA (Euskal Kulturaren Alde) elkartearen idazkari izan zen.

Paristik, Eusko Irratian, berriak ematen zituen, euskaraz, *Azkon* izenordeaz.

Baionako urteetan berak sortu, zuzendu eta osorik idatzi zuen *Irazkintza* euskal aldizkaria, irakaskuntzari buruz bere ideiak jasoaz.

Eta Manuel Lekuonaren zuzendaritzapean 1970ean berpiztu zen Kardaberaz Bazkunako kide ere izan zen.



Padre Orbiso eskola publikoko gela batean, 6. mailako haurrekin hizketan (1991-V-16). Ikasleek hitzaldi bat emateko deitu zioten. Laguntza honi esker, *Nola ikusten duzun Araba* lehiaketaren irabazle gertatu ziren.

## EUSKARAREN IKASBIDEA

Garai bateko euskarazko irakasleek, gerra ondoan aritu ziren aitzindari kementsu haiek, ezer gutxi zeukaten eskuartean beren eskolak prestatzeko.

Umandi dugu lekuko: bere burua euskaraz janzten zuen bitartean irakurritako liburuetatik, handik eta hemendik, gramatikazko oharrik hartzen zituen, gero eskoletan erabiltzeko. Azkueren hiztegia, beraren *Morfología Vasca* eta Altuberren *Erderismos* liburuak izan ziren bere gidari nagusiak.

Gutxika gutxika apunte batzuk osa zituen. Lehenengo zirriborro hura, ikasleekin erabiltzen zuena, Jon Etxaide bere adiskideari bidali zion; honek lehenbailehen argitara zezan aholkatu zion. 1953an, Parisen, lana borobildu zuen.

Etxaidek bezalaxe, beste euskaltzale askok ikusi zuten haren beharra, baita kalera zedin eginahala egin ere: Juan San Martin, Bittor Kapanaga, Imanol Laspiur etabarrek esku hartu zuten

egitasmo hartan. K. Mitxelenak aztertuta, eta Julio de Urquijo Euskal Filologi Mintegiak emandako babespean, 1955ean agertu zen bere *Gramática Vasca*, Paulino Larrañaga eibartarrak marraztutako azalarekin.

# 15



1955ean Umandi ezizena hartu zuen, hain zuzen gramatikarentzat, argazkian dugun Araiak Umandia haitzaren oroimenez. Jakina, poliziak-eta ez zuten jakin behar benetan norena zen.



1955eko edizioak 2.000 eta bigarrenak 1.500 izan zituzten. Eskuan izan zuen lehenengo alea Pariseratu zan lehengusu batek eraman zion. Horretarako, Miren Teresek geltokian trenari itxaron behar, lehengusuari eskuan emateko.

Ez zuten huts egin: berehala agortu zen lehenengo argitaraldi hura, bigarren bat (1963) eta hirugarren bat (1976) ateraraziaz.

Hamaika dira garai haietan bere gramatikarekin euskaraz ikasitakoak; haien artean ez dira falta Norbert Tauer hizkuntzalaria bezalako atzerritarrak ere.

Gramatikaren osagarri, *Bizkaierazko aditz-erak* (1955) idazkia prestatu zuen.

1977an *Euzkal-eliztiaren* betebidea, kaseten bitartez gramatikari laguntzeko, garai berriei amore emanez.

1986an *Euzkal Elizti Laburra. Asimasiak* erdaraz eta 1987an euskaraz atera zuen, biak euskararen ezagupen txiki bat bederen eduki nahi dutenentzat eginak.

1989an euskaraz egindako gramatika, *Euzkal Eliztia*, aurkeztu zuen; erdarazko berbera, baina oraingoan euskaldunentzat egokituta.

## ELEBERRIGILE

*Gentza-bearrean eleberria* (1985), literaturaren alorrean Umandiren saio nagusia dugu. Lan mardul honek, 500 orrialdetik gorakoa, giro zeharo euskaldun bat margotu nahi du, tartean esakerak, atsotitzak, ipuinak, alegiak eta ohiturak agerraraziaz.



Gentza (bakea) du gai nagusi.





## BESTELAKO LANAK

Aldizkari askotako lankide izan zen. *Euzko-Deya*, *Euzko-Gogoa*, *Estibalitz*, *Karmel*, *Kardaberaz*, *Alderdi*, *Egi billa* eta *Goiz-Argi-k*, besteak beste, ezagutu dituzte bere lumaren fruituak: hainbat iritzi-lan, abertzaletasunaz, historiaz, erlijioaz, gazteriaz... eta euskaraz, jakina: "Euzkera ta euzkel kultura", "Euzkeraren alde egin ditekena", "Euzkeraren batasunerantz", etab.

Euskara eta Euskal Herria dira bere beste bi libururen gaia: *Euzkal-Betekizunak* (1977) eta *Euzkeraren ebazkizun aundia* (1991). Etorkizunari begira, bata eta bestea indartzeko neurriak proposatzen ditu.



## NOLAKO EUSKARA

Irmoki jarraitu zion, honetan ere, hartu zuen bideari. Bere idazkera gehienbat gipuzkerazkoa da, beste euskalkietatik ikasitakoarekin aberastua.

"Nire lerroak josteko darabildan euzkerak errikoia izan nai du, edo jatorra izan diteken aren urbil bederik ibiltzea, gure euskalki guztien jokaeretan dantzatzen, guziak nireak eta oorenak diralarik" zioen bere eleberriaren aitzin-solasean.

## ASMO HIZTEGIA

Gaztaroaren gogo eta indarrarekin, 82 urte zituela hasi zuen lana da hau. Eta, halaz ere, sekulako lana dugu, asmoz eta ondorioz.

Bere buruan, eta Raimundo Olabide zenak zeukan ideia bati jarraiki, Julio Casaresek gaztelaniari eskaini zionaren antzeko bat egitea zegoen, hots, ideia (asmo) hiztegi bat. Honelako hiztegietan hitzak ez daude abezedarioaren ordenan, esanahiz erlazionatzen diren taldetan antolatuta baizik: landareak, abereak,... Eta talde bakoitzean, izenak, izenondoak, aditzak, esaerak eta atsotitzak, denetarik batzen da.

19



Euskaraz ez zegoen (eta ez dago) halakorik. Eta, gainera, euskara-euskara egiten zen lehenengo hiztegia ere bazen.

10 urte baino gutxiagoan, 300.000 fitxa baino gehiago prestatu zituen; 600 inguru bakarrik utzi zituen bukatzeke bere xedea betetzeko. Laguntzaileak, Gaspar Erkizia, Andoni Perez Cuadrado eta Miren Terese nekaezina.

1995ean Euskaitzaindiak lan erraldoi hau behar bezala gorde eta zabaltzearen aldeko informea prestatu zuen. Gaur egun UZEik fitxak euskarri informatikoan ezartze-lanean dihardu.



Fitxa horiak hiztegi arruntekoak dira; txuriak, asmo-hiztegiakoak: hitz nagusienaren ondoan, berarekin lotuta daudenak ageri dira.



Umandi hiztegi-lanean, etxeko lan-lekuan.